



Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Irailean eman ziren toberak Maiatzek argitaratu ditu

Amiкуze- Iholdi-Ostibarreko Kultur Astean Donapaleuko plazan eman ziren toberak, irailaren 22an, liburu batean jarri ditu Maiatz elkarteak. Herri Antzerki horrek Ipar Euskal herriko ohitura zahar bati jarraiki zion, plaza gainera gizarte arazo bat jokatzuz, auzi barregarri baten moldean. Izugarriko arrakasta ukan zuen ekitaldia irakurgai dago Maiatz eta Haize Berri Kultur Etxearen elkarlanari esker.

L.E. / BAIONA

Liburu apain eta atsegingarrien itxura pozgarria dauka Maiatz Ipar Euskal Herriko argitaletxeak Durangoko Azoka kari plazaratzen duen liburuak. Barruko mamiak toberak zer diren azaltzen du Antton Lukuren eskutik. Testua agertzen da ondoren, Mattin Irigoien obra eder bat, 50 argazkirekin. Ikuskaria burutik buru jarraitzeko ahala ematen du honek, ekitaldi bakoitza hurbilek ilustratzen bait da.

Toberak, auzi baten moduan egituratuak bait dira, eta kasu honetan Amikuzeko egoera ekonomiko larriari lotuak bait dira, honen argitasun beharrezkoak bertakoak ez direnentzat ematen dira 'argitzeko xedarekin'. Azkenik, Muskildin emana izan bait zen bigarren aldi batez urriaren 20an, bertako 'prologoa' ematen da. Azkenik jokolarien izen

zerrenda luzeak argi erakusten du toberak ukan zuten partaidetza handia.

ESPRESABIDE HERRITAR BERRITUA

'Amikuzeko karrikako euskara' erabili du Mattin Irigoienek, frantsesa nahas-mahas sartuz, bereziki hautetsi 'frantximantetaz' irri egiteko. Hizkuntza honek 'tritzoka' kontatzen digu dena, lerro muturrak rima araziz. Euskara atsegin honek bere neurri zuzena ematen dio toberari, egoera konkretuaren eta tokiaren irudi zehatzak eskaintzen dituela.

Liburu horretan Ipar Euskal herriko espresabide herritarren egoera aipatzen da. Euskal gizarteak garai batean asmatu bideen gaurkotzea eztabaidagai dakar.

IKUSKARI OSO ESKAINIZ

Antzerki zahar horren garaikidetasuna puntu interesanteenetarik da: ikuskari 'oso' bat agertzen du toberak. Alabaina hitza, dantza, musika, taula eta plaza jokoa, bertsoa, herriaren partaidetza, lotura soziala, gutxitan elkartzen dira toberetan bezainbat.

Gai hori sar hitzean Antton Lukuk zehazten du: «Aspaldidanik entzuten dugu dantzak, irautekotan, kreativearen beharra baduela. Bakarrik obra eder eta apaindu horiek ez dute eraginik herriko dantzan orainokoan. Espezialitate guztietako kulturzaleak segi balitez elkarrekin biltzen toberakari, aurki genezake hor dantza berrien herritartzeko arragoa».



Mattin Irigoienek esperientzia luzea du antzerkian, eta bereziki Toberak kudeatzen.

LUZIEN ETXEHARRETA

Mattin Irigoien toberen idazle arduraduna

LUZIEN ETXEHARRETA / BAIONA

Ainizako Irigoien anai aipatueta-riko bat da Mattin. Ardi esnearen kontrola egiten du, laborarien etxetan. Hogeitazazpi urte ditu eta antzerkilari esperientzia luzea du ia Garaziko Hiruak Bat antzerki taldean. Umorea naturalki darion Mattinek modestia handiz aipatzen du bere lana toberak kudeatzen, baina erraz konturatuko da nornahi mundu horretaz daukan ezagupen zehatzaz eta bertatik bizia eta umorearen pindarrak ateratzeko daukan gaitasun harrigarriaz.

EGUNKARIA.— Nola sortu zen toberak egiteko ideia hori?

MATTIN IRIGOIEN.— Bazen sozial mugimendu bat Amikuzen abiatua 'Kantonamenduaren Geroa' taldearen inguruan. Bestalde bada hemen kultur mugimendu bat, euskal kulturari atxikia dena eta hastapenetik bere oinarrietan daukana kultura eta konomia batera doazela. Kantonamenduaren Geroa inguruko gauzak frantsesez eginak ziren eta kultur mundua hor ez zen hainbat inplika-

tzen. Orduan, ideia izan da toberekin, denak, bai soziala bai euskal kultura bateratzen zirela. Gainera, tobera molde egokia da eskandalu batzuk agertzeko plazan, bide irringarrian.

EGUNKARIA.— Nola landu dituzue?

IRIGOIEN.— Kultur Asteari buruz, berehala interesa izan zen toberak egiteko. Landu genuen Antton Luku eta Sauveur Baxoren artean eta ardurari nihaurek hartu nuen.

EGUNKARIA.— Irigoien familian dukezuen umore berezia erabili duzu...

IRIGOIEN.— Ez dut hainbeste kalkulatu! Lehendabizi, planu bat egin dugu, problema guztien aipatzeko molde irringarrienean eta gero, tritzoka sakatu! Tritzoak ematen du irri egiteko gogo. Gero sartu ditugu gag batzu...

EGUNKARIA.— Toberetan hitz gogor eta iraingarriak botatzen dira ohituraz. Mugarik jarri al duzue zuen...larrikerietan?

IRIGOIEN.— Ez zen batere helburua gaiztakeriaz jendea trufatzea. Da kritika sozial bat, egun guztiez notaleek egiten edo ez egiten dituz-

tenak salatzeke. Ez dugu gaiztakeria pertsonalik bilatu badaezpada. Muga hor zen menturaz. Auzapeza ez da haserretu, jakin dugunaz, momentuan irri egin du eta gero ateratu zen...

EGUNKARIA.— Errepikatzeke gogo eman dizue horrelako arrakasak?

IRIGOIEN.— Bai, zeren horrek posibilitate asko ematen bait du. Guk ez dakigu berriro aterako ditugun, baina beste nonbait badaiteke...

EGUNKARIA.— Euskararen zaindари batzuek zure 'karrikako euskara' jorratuko dute berdin...

IRIGOIEN.— Hautu bat izan da 'karrikako euskara' horrena, hasieratik. Tobera karrikako espresabidea da, eta ez Akademiakoa! Jendea mintzo den bezala egin dugu. Tritzoka ibiltzea zentzu berean hartu dugu.

EGUNKARIA.— Zergatik erabaki duzue argitaratzea?

IRIGOIEN.— Lehendabizi oroitzapen baten uztea zen helburua ari izan direnentzat. Gehiago dena, harrera ona ukan bait du jende askorengandik, galde egiten ziguten testua argitaratzea.

BIZI IRAKURRIZ

MOMO, KALEKO LEGEA, BANPIRO TXIKIA,
BABAR, IGEL ETA UBEL, AMAIGABEKO
ISTORIA.....

Gaurko Irakurketak

ENDE, DAHL, NOSTLINGER, DURREL, LOBEL,
HINTON.....

Gaurko Idazleak

Haur-Gazte Saila

ALFAGUARA

DESCLÉE DE BROUWER

IRAKURKETA BIZIAK



Eska itxazu zure liburudendan edo
Desclée De Brouwer. Henao, 6
48009 BILBO - Tels.: (94) 423 30 45-424 68 43



ETOR ARGITALETXEA

Bertsolaritzaren Historia argitaratzen ari da.

Bertsoz bertso eta bertsolariz-bertsolari, Erdi Arotik 1989ko txapelketara arte. Eritzi kritiko eta azterketa berri ugari. Kontsultarako gidaliburu fidagarria, denborapasarako irakurgai atsegina. Gerora egin litezkeen azterketa lan guztien ezinbesteko erreferentzia.

☐ Bertsolaritzaren historiaren liburu sailera harpidetzen naiz.

Izen abizenak:

Zuzenbidea

Telefonoa:

Banketxea

Ordainkera

Herria

Sukursala

☐ Epetan. 7.000 pta. liburuko☐ Dena batera

Postal kodea

K.k.



C/ Euskal Herria, 2-2º Apdo. 193
Donostia. Tlf: (943) 42 12 49 / 42 35 02

Izenpea:

EZAUGARRIAK
ENKUADERNAZIOA LARRUZ
12 TOMO
Orrialde kopurua: 12.000
Neurriak: 16 x 24